

Neandertala, lehen gizaki erlijiosoa?

Según los prehistoriadores, los primeros atisbos de religiosidad de la Humanidad se sitúan en los últimos milenios del Paleolítico Inferior, aproximadamente entre 150.000 y 35.000 años atrás.

El periodo señalado se corresponde con el apogeo del hombre del Neandertal, cuyos restos hallados en Europa y Eurasia testimonian una presencia extensa y duradera. En la cultura material del Neandertal se intuyen también los primeros atisbos de religiosidad, particularmente en los enterramientos que han encontrado los arqueólogos.

Oso zaila da, egingarri baldin bada, gizakitarako eboluzioan hominizazioari bere kronologia espirituala ematea, gizakiagan pentsamendu eta adierazpen sinbolikoa noiz jaio ziren esatea, mintzamina noiz jaio zen jakitea, erlijiotasunaren jaiotordua finkatzea. Baina badirudi, ibilera horretan, gizaki neandertaldarrak urrats esanahitsua eman zuela.

Gizaki erlijiosoaren bila?

Eman dezagun Lehen Paleolitoaren azken milaka urteetan gabiltzala, esandako urte haietan. Eurasian, gizaki neandertaldarra da nagusi, lehenagoko beste gizaki-motak desagertuta edo ahulduta ditugun bitartean.

Orduan, eta gero, erlijiotasuna berez giza gogoaren baitako bizipen ezkutua da, norberaren barne isilean bizi dena. Inoren erlijiotasunaz zerbait jakiteko, premiazkoa da –halakorik balego– kanpoko erlijio-agerpen moduren bat topatzea, hitzaren bidez adierazia edo esanahi sinbolikoa duten bestelako azalpenetan, eraikin, tresna, erritu nahiz ospakizun erlijiosoetan adibidez. Hain zuzen, arkeologoaren egitekoa izango da, lehenik, horrelako lekukotasunik badagoen esatea, eta ondoren, aurkitutakoen esanahia argitan jartzea, interpretatzea.

Erljiotasuna gertakari kulturala da, eta berori bere osotasunean garatzeko aurretik kultur bidean urrats batzuk bederen eman beharra egon da. Izan ere, galdera larriak zeuden tarteko: Giza-

eboluzioaren harian, zein unetan agertu zen gizakiagan dugun oharrena? Berorren baitan dagoen barne-gogo nola piztu zen egun batez (gogo hori bere esanahirik aberatsenean ulertuta)? Nola sortu zuen gizakiak mundu sinboliko deitu behar duguna? Noizkoa dugu hizketa bera? Eta tresna horiekin noiz eta nola heldu zen gizakia erlijiotasunera?

Erljioetako eta Bibliako mitoen bidezko azalpenak eta lehen gizonaz ari den paleontologiaren aurkikundeak ez daude berez elkarren kontraesanean, eta elkarren osagarri ere izan daitezke, bi maila ezberdinetatik hitz egiten baitigute, fedearenetik eta zientzietatik.

Neandertalena izan da hildakoei lur ematen ziela erakusten digun lehenengo kultura, hobi eta ehorzketa lekuak aurkitu baitira haren Moustier-aldiko kulturaren. Aditu askorentzat hori aski frogatzen da Neandertalari sineste-motaren bat aitortzeko, ehorzketa haietan erritualen bat ere egoten zela adierazten duten zantzuak egon badaudelako.

Zailtasun handiak daude, noski, gizaki neandertaldarren kultura bere osotasunean antzemateko, utzi zizkigun eta guganaino heldutako hondarrek gehienetan oso gutxi diotelako haien kultura espiritualaz. Hala ere, eskaini izan zaizkien ikaslanek ez dute erabat alboratu uzten alde hori, eta ez dira falta orduko "gizaki sinbolikoari"; hizkuntzari edo heriotzako errituei eskaintzen zaizkien kapituluak.



Neandertala bere inguruko heriotzaz ohar-tuki jabetuta ageri zaigu; maite zituenak hil egiten zitzaizkiola-eta, gerokoaz galdetzen bazekien; hildakoaren gorpuen aurrean ez zen geratzen zer egin ez zekiela, edo ez zuen alde egiten beste gabe, animalien antzera. Ondorioz, egun batean, hildakoak ehortzi egin behar zirela erabaki zuen, eta horretarako arau sozialak sortu zituen, nolabaiteko "hiletak" alegia.

Hilondoko segidaren baten ideia ere horrela piztu zitzaion, agian, eta bizien eta hildakoen bi munduak elkarrekin lot zitzakeela uste izan zuen behar bada: horretarako, heriotza-errituak antolatatu zituen. Erljiotasun-motaren baten atarian gertatu zen, bada; baina inondik ere ez, artean, naturatik harago geroko gizakiok erlijiotasuari aitortuko dizkiogun izaera eta balio berdinekin.

Historialari anitz mintzatu da horretaz, eta erlijiotasunaren historiatik beste herrialdeetan ikasitakoak lagun dezake Euskal Herriko aurkikundeak ere ulertzen.

Neandertala Euskal Herrian (100.000/35.000)

Gutxi, baina zenbait aztarna utzi zuen gizaki-mota honek gurean. Sortutako tresnetatik asko izan gabe, nahikoa hondar dugu Euskal Herriko hainbat aztarnategitan, bakoitza bere balio eta ekarpenekin.

Lehenengo, aspalditxotik ezagututa aire libreko aztarnategiak leudeke: Arabako batzuk (Aitzabal, Urizaharra, Murua), Nafarroako zenbait (Iruñea, Zuñiga, Lizarra, Irunberri) edo Iparraldeko bat edo beste (Bidarte, Miarritze).

Haitzuloetan ere bizi izan zen hemengo neandertaldarra, eta orduko Moustier-aldiko aztarnategiek lekukorik aski utzi digute garaiko "artisauek" landutako tresnetan: Axlor (Dima), Lezetxiki (Arrasate), Amalda (Zestoa), Olha (Kanbo), Isturitze (Nafarroa Beherea), Gatzarria (Zuharra, Zuberoa), Murba (Trebiñu), Aranzaduia (Urba-

sa, Nafarroa) edo La Baste (Lapurdi). Urbasako Aranzaduia (1968) edo Zestoa (1996) balio berezikoak ditugu, hura Paleolitoko harlandu-lantegia izan zelako, eta hau, oster, dagoeneko erakutsi eta iradoki duen hondakin-abe-rastasanagatik.

Hau dena, ordea, garaiko ekoizpen materiala da, ia beti kultura sinboliko-espirituala ulertzeko gardentasun eskasekoa. Hala ere, esan behar da behintzat neandertaldarraren hemengo presentzia frogatuta uzten digutela aztarnategitako hondakin horiek. Bada zerbait.

Zorionez, gizaki neandertaldarraren gorpuzkiak ere aurkitu dira gure aztarnategietan, eta beroriek Euskal Herriko bizilagunik zaharreneen hondarrak suertatzen zaizkigu, gaurko giza-kion arbasoak ez izan arren: gutxienez, badakigu Arrasateko Lezetxikin eta Dimako Axlor-en bizi izan zirela. Lezetxikin, 40 urteko emakumezko baten besahezurra, eta Axlor-en hainbat hortz topatu dira.

Gainera, pentsa daiteke nonbaitetik Lezetxiki-ek ekarritako margogaiak balio sinbolikoa izan zutela eta, behar bada, errituzko ospakizunetarako erabili ohi zirela. Hortaz, uste daiteke hemengo neandertaldarra lehen erlijiotasunaren atarian edo barnean zegoela, oraindik Euskal Herrian aurkitu ez diren garai haietako ehorzketak eta hilobiak zainduz.

Hainbat historialarik seriooki proposatu ditu Lehen Paleolitoko erlijiotasunaren hipotesia eta tesia ere, premiazko muga zuhurren barruan (M. Pattou-Mathis, Chavaillon edo Leroi-Gourhan aipa daitezke). Altunak ere ideia bera azaldu du neandertaldarrari buruz: berorren garaikoak direla, alegia, hemengo kultura espiritualaren lehen adierazpenak, Lezetxikin edo Amaldan (Zestoa) neurriren batean antzeman daitezkeenak.

Joseba Intxausti